



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

OBRA KONTRATUA "GOROSPIL BIDEA HORMIGONATZEA"

Zubietan bildurik, 2025eko apirilaren 3an.

Alde batetik, ERNESTO DOMINGUEZ OLEA, Zubietako alkate-udalburua, adinez nagusia, 14.606.398 H zenbakidun NANaren jabea.

Beste aldetik, IÑAKI MIQUELARENA IRAIZOZ jauna, adinez nagusia eta DNI 44.635.107-L, zenbakidun NANaren jabea

PARTE HARTZEN DUTE:

Ernesto Dominguez Olea jaunak Zubietako Udalaren izenean eta Iñaki Miquelarena Iraizoz jaunak eta M.A. ARRIXKO IGELTSERITZA S.L. CIFa B-71143911 duen enpresaren izenean. Bi aldeek obra kontratu hau hitzartzen dute, oinarritzat hartuz honako.

AURREKARIAK

LEHENDABIZIKOA.- Zubietako osoko bilkurak, 2025eko martxoaren 20an hartutako erabakian, onetsi zuen "Gorospil bidean hormigoia botatzeko proiektua" obrak M.A. ARRIXKO IGELTSERITZA S.L. enpresari esleitzea, 46.191,79 (BEZ gabe) eurotan.

Kontratu hau gauzatzeko legezko ahalmen erabatekoa bi aldeek ezagutzen diotelarik elkarri,

HITZARTZEN, ADOSTEN ETA EGILESTEN DUTE

LEHENA.- M.A. ARRIXKO IGELTSERITZA S.L. konpromisoa hartzen du "Gorospil bidean hormigoia botatzeko proiektua" obrak egiteko, Martin Mindeguia ingeniariak prestaturiko proiektuan jarritako baldintzetan.

BIGARRENA.- Kontratuaren prezioa da berrogeita sei mila ehun eta laurogeita hamaika euro eta hirurogeita hemeretzi xentimo (46.191,79 €), gehi BEZa.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren iraupena 30 egun naturalekoa izanen da. Hasiera-aktako datan hasiko da epea.

Bermego epea bost urtekoa izanen da, obrak hartu eta gero.

LAUGARRENA.- Kontratu honetan aipatu gabe geratu diren xehetasunak arautzeko baldintza-plegua eta 2/2018ko Foru Legea aplikatuko dira.

Eta adostasunaren seinaleztat, bi aldeek sinatzen dute kontratu hau, bi kopiatan eta xede bakarrez, burualdean adierazten diren leku-datetan.

UDALA,



ESLEIPENDUNA,